# COVID-19rako txertoen patenteak **aldi baterako etetea**ren aldeko euskal adierazpena

Gure lurraldean –baita beste errealitate batzuetan ere– osasunaren aldeko apustua egitea euskal erakunde publikoen ardura eta zeregin iraunkorra izan da, baita gizartearena ere. Euskal herritarrek, gurean bizi diren atzerritarrek eta beste herrialde batzuetako herritarrek osasunerako sarbide orokorra izatea sustatzeko ekintza eta ekimenak garatzeko konpromisoan zehaztu da hori guztia.

Gaur egun, azkenaldiko historiako osasun publikoaren arloko larrialdi latzenetako baten aurrean gaude. 3,5 milioitik gora lagunek galdu dute jada bizia mundu osoan. Munduko ekonomiak bilioika dolar gal ditzake immunizazio-tasak ez badu mundu osoan bizkor gora egiten. Osasun-sistema nazional asko kolapsotik hurbil daude, ekonomia osoak menpean hartuta daude eta milioika lagunen bizibidea dago jokoan.

COVID-19ak erakutsi digu ezin dela pandemia gainditu munduko txoko guztietatik desagerrarazten ez dugun bitartean. Ildo horretan, COVAX-AMC deitutako COVID-19 Txertoetarako Sarbide Globaleko Funtsarentzako baliabide ekonomikoen zuzkidura batekin indartu da aurten Eusko Jaurlaritzaren konpromiso iraunkorra. Haatik, ekintza gehiago behar dira, eta ekintza horietako bat txertoen fabrikazioa eta eskuragarritasuna modu urgentean eta esponentzialean gehitzea da, baita txertoen banaketa bidezkoa bermatzea ere, eta horrek ezagutza, datuak, baliabideak eta jabetza intelektuala modu zabalean partekatzea eskatzen du, batez ere diru-sarrera txikiak edo ertainak dituzten herrialdeekin.

Zenbait herrialdek –hala nola Indiak eta Hego Afrikak– patenteen salbuespen bat eskatu zuten iazko urrian, COVID-19aren diagnostikoarekin eta tratamenduarekin lotutako txerto, botika eta produktu sanitarioen jabetza intelektuala eta haiei buruzko ezagutza ahalbidetuko zuena. Gaur egun, Osasunaren Mundu Erakundearen zuzendari nagusiak eta 100dik gora estatu-gobernuk Merkataritzarekin lotutako Jabetza Intelektualeko Alderdiei buruzko Akordioetan bildutako betebehar jakin batzuen salbuespen aldi baterakoa eta puntuala babesten dute. Jabetza intelektualak sortutako oligopolioak saihestuko lirateke ekimen horrekin eta jarduteko askatasuna sustatuko litzateke, mundu osoan COVID-19rako txertoen prestutasuna, irisgarritasuna eta eskuragarritasuna gehituko duen lankidetza ahalbidetuz.

Osasunaren Mundu Erakundeak, Jabetza Intelektualaren Akordioei buruzko Kontseiluak eta G7ak beren agendetan gai hori barne hartuta duten testuinguru batean, ondoren sinatzen dutenak COVID-19ari lotutako txertoetarako eta beste erreminta mediko batzuetarako patenteen salbuespen aldi baterakoaren eta puntualaren alde daude, eta bide hori babesten dute. Babes horren oinarria zera da, beharrezkotzat jotzen dela mundu osoan lankidetzan aritzea txertoak kopuru nahikoan garatu eta

# Declaración vasca a favor de la **suspensión temporal** de las patentes de las vacunas para la COVID-19

La apuesta por el derecho a la salud en nuestro territorio, así como en otras realidades, ha sido una preocupación y una ocupación permanente de la institucionalidad pública vasca, así como de la sociedad. Esto se ha concretado en un compromiso para el desarrollo en acciones e iniciativas que han promovido el acceso universal a la salud de la población vasca, población extranjera aquí residente, así como poblaciones de otros países.

En la actualidad, estamos ante una de las emergencias de salud pública más grave de la historia reciente. Ya se han perdido más de 3,5 millones de vidas en todo el mundo. La economía mundial puede perder billones de dólares si la tasa de inmunización no aumenta rápidamente en todo el mundo. Muchos sistemas nacionales de salud están cerca del colapso, economías enteras están doblegadas y el medio de vida de millones de personas está en juego.

La COVID-19 nos ha enseñado que no es posible superar esta pandemia hasta que no la erradiquemos de todos los rincones del planeta. En este sentido, el compromiso permanente del Gobierno Vasco se ha visto reforzado este año con una dotación de recursos económicos al COVAX-AMC, Fondo de Acceso Global para Vacunas Covid-19. No obstante, son necesarias más acciones, y una de ellas es aumentar de manera urgente y exponencial la fabricación y la disponibilidad de vacunas, así como garantizar su reparto equitativo a nivel mundial, lo cual requiere compartir de forma amplia el conocimiento, los datos, los recursos y la propiedad intelectual, especialmente con los países de ingresos bajos y medianos.

Países como India y Sudáfrica solicitaron una exención de las patentes el pasado mes de octubre que facilitara la posibilidad de compartir la propiedad intelectual y el conocimiento de las vacunas, medicamentos y productos sanitarios relacionados con el diagnóstico y tratamiento de la COVID-19. En la actualidad, el Director General de la Organización Mundial de la Salud, y más de 100 gobiernos estatales, apoyan la exención temporal y puntual de determinadas obligaciones recogidas en los Acuerdos sobre los Aspectos de los Derechos de Propiedad Intelectual relacionados con el Comercio (ADPIC). Con esta iniciativa se evitarían los oligopolios generados por la propiedad intelectual y se promovería la libertad de operar permitiendo una colaboración que aumente y acelere la disponibilidad, accesibilidad y asequibilidad de las vacunas para la COVID-19 a nivel mundial.

En un contexto en el que tanto la Organización Mundial de la Salud, el Consejo sobre los Acuerdos de Propiedad Intelectual (ADPIC) y el G7 cuentan en sus agendas de trabajo con este tema, quienes firman a continuación manifiestan su apoyo a la exención temporal y puntual de las patentes para las vacunas y otras herramientas médicas vinculadas a la COVID-19. Este apoyo se basa en que se considera

fabrikatzea, eta mundu osoan garaiz eta modu inklusiboan banatzeko saihestu ditzaketen eragozpenak desagerrarazteko. Eta osasunaren aldeko apustuak ziurtatu egin behar duelako jabetza intelektualeko eskubideek ez diotela ezein herrialderi eskubide hori baliatzea eragotziko.

que es necesario cooperar a escala mundial para eliminar los posibles obstáculos que impiden garantizar que las vacunas se desarrollen y fabriquen en cantidad suficiente y se distribuyan luego a tiempo y de manera inclusiva en todo el mundo. Y porque la apuesta por el derecho a la salud debe asegurar que los derechos de propiedad intelectual no impidan a ningún país garantizar el disfrute de este derecho.

Sinatzaileak / Firmantes:

Iñigo Urkullu Renteria
Lehendakaria
Eusko Jaurlaritza

David Noguera Hancock
Presidentea / *Presidente*
Médicos Sin Fronteras España

Esteban Beltrán
Zuzendari nagusia / *Director General*
Amnistía Internacional

Beatriz Novales Colado
Directora del Departamento de Programas, Ciudadanía e Incidencia
Oxfam Intermón

Milagros López de Ocáriz López de Munain
Presidentea / *Presidenta*
Euskal Herriko Farmazialarien Kontseilua
*Consejo de Farmacéuticos del País Vasco*

Manuel García Bengoechea
Presidentea / *Presidente*
Euskadiko Sendagileen Elkargoen Kontseilua
*Consejo de Colegios de Médicos del País Vasco*

María José García Etxaniz
Bizkaiko Erizaintza Elkargoko Presidentea / *Presidenta del Colegio de Enfermería de Bizkaia*
Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Erizaintzako Elkargo Ofizialen izenean
*En nombre de los Colegios Oficiales de Enfermería de Araba, Bizkaia y Gipuzkoa*

Ricardo Franco Vicario
Presidentea / *Presidente*
Bilboko Mediku Zientzien Akademia
*Academia de las Ciencias Médicas de Bilbao*